

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



ANDOAIN JAIETAN MURGILDU DA

Asteartean abiatu ziren Santakruzak, haur pregoiarekin eta helduen pregoiarekin. Aiurri protagonista bilakatu zen, jaien hasierako pregoia eskaini baitzuen. Iganderarte, ospakizun ugari Andoainen / 8-9-15

Kongresurako eta Senaturako emaitzak

Joan zen igandeko hauteskundeetan PSE-EE gailendu zen Andoainen, eta EAJ-PNV Urnietan. Haiekin batera boto gehienak EH Bilduk eta Podemosek jaso zituzten / 16



Udal agintaldia amaitzen ari da Andoainen. Elkarrizketa Ana Carrere alkateari / 2-3



Udal agintaldia amaitzen ari da Urnietan. Elkarrizketa Mikel Pagola alkateari / 4-5



Bosna hautes-zerrenda aurkeztuko dira maiatzaren 26ko Udal hauteskundeetara / 6



MAIATZAK 24, OSTIRALA

17:30 **URNIETA** Egape ikastolako jolastoki estalia

AURRE SALMENTA:
Maiatzaren 6tik aurrera.

HERNANI
• Leokadisti, Urbieta kalea, 6.
URNIETA
• 2KN okindegia, M.Yurramendi 2, udaletxearen ondoan.
ANDOAIN
• Aiurri, Arantzibia plaza.
• Ernaitza liburudenda, Zumea kalea

SALMENTA EGUNEAN BERTAN:
16:30. Egape ikastolako jolastokiaren atarian.

7€

Antolatzaile
AIURRI
Laguntzaile





Ana Carrere, Andoaingo alkatea. AIURRI

Andoaingo alkatearen azken egunak udaletxean

ANA CARRERE ZABALA ANDOAINGO ALKATEA

Zortzi urtez jarraian agintean egon den alkate bakarra da. Eta, gainera, emakumea. Laster amaituko da agintaldia, eta berarekin batera Carreren aro politikoa

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Hauteskunde Orokorren biharamunean egonik, zein analisi egiten duzu? Estatu mailako eta udalerriko emaitzak ikusita, zein da zure balorazioa?

Gure datuak onak izan dira, baina datu guztiak erlatibizatu egin behar dira. Kongresurako hauteskundeeetan botoa ez da hain finkoa, eta herritar askok botoa hauteskundearen arabera

erabakitzen du. Parte hartze handia izan da, eta jeltzaleekin parez pare egon gara. EH Bilduk, orokorrean, emaitza onak lortu ditu lurralde guztietan. Azkar batean, horixe nire analisisia.

Zure azken egunak dira alkate lanetan. Nola bizi duzu egoera hori?

Udaletxean sartzen naizenean hemengo zereginetan murgildu eta ez naiz galdetzen didazunaz horrenbeste jabetzen. Azken plenoa deitzea falta zaigu, eta pleno hori prestatzen gabiltza. Udaletxetik ateratzean, gertukoen eta lagunen artean egoeraz kontzientzia hartzen noa. Hilabete eta erdi geratzen da agintaldia amaitzeko.

Bi marka hautsiko dituzu: Perez Gabarainek urte asko pilatu zituen alkate bezala, agintaldi ezberdinetan zehar. Baina inoiz ez da alkate modura zortzi urtez jarraian aritu. Aro bat osatuko duzu.

Zortzi urte dira, bai. Baina ez pertsona bakar baten inguruan, proiektu politiko baten inguruan baizik. Bi agintaldietan jarraian herritarren onespina jaso dugu, hori nabarmentzea oso garrantzitsua da. Talde bat gara, eta neu talde horren buru ari naiz.

Bi agintaldietan emakumea alkatetzan. Eta ez dira gutxi zinegotzi diren emakumezkoak. Gizarteari begira emakumeen ikusgarritasun hori lortzea beharrezkoa zen.

Garrantzia handia ematen diot horri. 40 urte bete dira demokrazia garaiko lehen alkateak izendatu zituztenetik. Urteurreneko ekitaldi hartan alkate izandako lau emakumezko besterik ez ziren agertu. Oraindik ere bide luzea egiteko dugu. Emakume bat aginte postuan egotea, neu izan edo beste emakume bat izan, garrantzitsua da. Azken agintalditan emakumezko asko egon dira zinegotzi lanetan. EH Bilduko lehen agintaldian, esaterako, zazpi zinegotzietatik bost emakumezkoak ginen. Eta agintaldia sei emakumerekin amaitu genuen.

Garai batean Perez Gabarainekin edo Amutxastegirekin gertatzen zen fenomenoa zuregan errepikatzen ari dela nabari dut. Kalean zoazela hango eta besteko herritarrek hurbiltzen zaizkizu. Duela zortzi urte ez zinen hain ezaguna, eta orain aldiz kalean geratzen zaituzte. Alderdiaren marka hori gainditu eta denen alkate bilakatu zarela esango zenuke?

Urteen poderioz erreferente modukoa bilakatzen zara, eta diozun hori maiz gertatzen ari zait. Eskaeraren bat egiteko, zerbait jakinarazteko edota besterik gabe hitz egiteko hurbiltzen zaizkit herritarrek. Jakin badaikit horiek guztiak ez direla nire

botu-emaileak. Herritar horientzat gertuko harremana izatea garrantzitsua da.

Zure ibilbidea aztertzen hasita, zer nahiago duzu: Zortzi urtez alkate izan zarela adieraztea? Ala bi agintaldian aritu zarela esatea? Ezberdina baita.

Ez dut inoiz horrela planteatu. Denera, maila pertsonalean zortzi urte izan dira. Baina egia da bi agintaldi oso ezberdinak izan direla, eta programaz edota udal jardueraz ari naizenean askotan bereizten ditut lehen agintaldia eta bigarren agintaldia.

2011ko argazkiekin alderatuta, argazki horietan oso gazte nabari zaitut. Desgaste handia al da alkate izatea?

Bai, desgaste handia da. Oso gauza positiboa da alkate izatea, eta nire iritziz alkate gisa jardutea guztiz gomendagarria da. Loari orduak kendu behar zaizkio, hori bai, 24 orduko lanaldi modukoa baita. Opor garaian ere telefonoa gertu eduki behar izaten da.

Egia da, bestalde, behin dinamika hartuta, karguari neurria hartu niola. Baina ardura handia dela aitortu behar dut.

Udalgintzan sartu zineten 2011n. Lehen pauso horiek, gaurko ikuspegiarekin, nola gogoratzen dituzu?

Inozentzia apur batekin. Tes-tuinguru politiko zailean iritsi ginen udalgintzara, gure hautagaitzak azken ordura arte kolokan izan zirelako. Ni ez nintzen militantzia politiko handiko pertsona izan, eta udalgintzarekin nuen harremana oso oinarritzkoa zen. Beraz, 2011ko garai hartatik, inozentzia hori eta genuen ilusioa gogoratzen ditut.

Beste modu batera ezinezkoa litzateke, bereziki udalgintzara sartu ginen modua kontutan hartuta. Krisi ekonomikoak bete-bete harrapatu gintuen, ezker abertzalearen lege kanporatzeak eragin zuzena izan zuen egitura guztietan. Bilduk eduki zezakeen egitura desegin da zegoen, eta zerotik abiatu behar izan zen.

Udalerrri askotan egoera antzekoa izan zen. Gaurko ikuspegiarekin eta pilatu dugun esperientziarekin, hasierako garai haiek gogoratzen hasi eta "ene!" modukoa ateratzen zait. Administrazioari buruzko ideia gutxi genuen, eta egoera ekonomiko oso oso larria aurkitu genuen. Zailtasunei aurre egiten xahutu genuen gure ilusio eta

indar guztia. Nekagarria izan zen. Baina aldi berean esperientzia handia metatu genuen. Ikasketa prozesu oso handia izan zen.

2015ean agintea berriro hartu zenutenean baliatu zenutena, bestalde.

Zulueta, Mujika eta Alberro ardura postuetan murgildu ziren. Sendo, gainera. Taldea osatu genuen, eta denon ekimenari esker gure lana biderkatu egin da.

Aipa ditzagun hainbat egitasmo zehatz. Horietako bat hondakinen kudeaketa da. Bosgarren edukiontzia errotuz doa eta errefusarako txipa duen edukiontzia txertatu duzue. Aparteko zalapartarik gabe, dirudienez.

Herritarrek dagoeneko ulertzen dute zein den dinamika, eta ingurumenarekiko kontzientzia geroz eta handiagoa da. Herritar askok normaltzat hartu dituzte aldaketak. Hobetzeko gauzak baditugu, noski. Poltsa egokia erabili behar da organikoa bereizteko garaian. Eta poltsa edukiontzi barruan sartzeko ahalegina egin behar da.

Eskualde mailako garapen agentzia. Zergatik kostatzen da hainbeste martxan jartzea?

Lehenik eta behin, maila politikoan, ordezkaritza anitza duen sei herrialde direlako. Hortik abiatuta erakunde berria sortu behar da. Ezeretik sortu behar da, gainera. Denbora honetan guztian zehar legedia aldatu egin da, eta udalaz gaindikoa erakundeak sortzeko arauditegia asko zorroztu da.

Erakunde horri zein egitura eman, lantalde batekin hornitu, erakundea antolatzeke forma juridikoa eta teknikoa eman... horietatik dira egitasmoa luzatzeko arrazoi nagusiak. Agentzia sortzeko bidean utziko dugula espero dut.

Azpikolako harrobia. Azken sententzia Udalaren aldekoa izan da. Garaipen pertsonal modukoa al da?

Ez, inondik inora. Udal erakundearen garaipena izan da. Josteko Maraña Udal idazkariak



Ana Carrere Andoaingo alkatea izan da, azken bi agintaldietan. AIURRI

egindako lana nabarmendu behar da. Juridikoki Udalaren eta herriaren interesak defendatzeko lan sakona egin du. Guk gure programa politikoan Azpikolan egitasmorik ez abiatzeko promesa egin genuen. Horrela idatzita oso ondo dago. Baina gero hori juridikoki landu egin behar da. Alkatetzan sartu aurretik ez genekien zenbateraino zegoen egitasmo hori landuta.

Sententzia Udalaren aldekoa izan bada, meritua Udal idazkariarena eta berarekin batera lanean aritu diren teknikari guztiena da.

Arrate pilotalekuan eraldaketa handia izan da.

Poz handia ematen dit Arrate nola geratu den ikusteak.

Frontoian, ordea, ezustekoak izan dira.

Aurreikuspenak ez dira bete, bereziki Arrateko planoetan

agertzen zenaren eta benetan zegoen materialaren artean alde handia zegoelako. Frontoiaren paretak eta zorua ez ziren uste bezain sendoak. Eta frontoiko lana egin ahal izateko Arrateko azpialdearen oinarria sendotu behar izan da. Hori dela eta, gaikaldea eta behekaldea batera konpontzea ezinezkoa izan da.

Behin lanak amaituta, bada azpimarratu nahi dudana xehe-tasuna. Legeak dioenez harago joan eta irisgarritasun mailako neurri asko hartu ditugu. Gormutu, itsu eta bestelako ezintasunak dituztenentzat egokিত dago. Alor horretako adituek egindako lanagatik zoriondu gaituzte.

Bizikidetzan urratsak eman dira. Duela sei urte edo Aiurri Errenteriako bizikidetzaren egitasmoa eredutzat hartu zenuen. Argitzeke txostenaren aurkezpenean alde

guztietako biktimak elkartzea lortu zen. Udalaren lorpen modura bizi izan duzue hori?

Oso garrantzitsua izan da. Urte batzuk atzera ezinezkoa zirudien. Denontzat prozesu modukoa izan da, prozesu pertsonala. Hitz egiterakoan, hitzen erabileran... prozesu dinamikoa eta interesgarria izan da. Gatazkaren harira hitz egitea eta iraganeko min horiek leuntzea garrantzia handikoa da. Elkartasunaren eta enpatia-eraren ikuspegitik, iazko abenduko ekitaldia garrantzia handikoa izan da.

Udaletxean sartu zinenetik zure izaera feminista aldarrikatu duzu. Mugimendu horrek, hain justu, azken bi urteetan bultzada handia ezagutu du. Etorikizuean mugimendua horretan burubelarri ikusiko al zaitugu?

Lehenik eta behin, agintaldia amaituta, atsedean hartzen utzidazu. Oso gazte nintzela feminismoarekin sentsibilizatu nintzen. Gakoa norbera bote-tzeko da, bizitzaren arlo guztietara eraman behar dena. Aldea dago: Ez da emakumea izatea, feminista izatea baizik. Nire joera ez da berria, baina poztekoa da gazteen artean dagoen bultzada berria.

Etorikizunaz ari garela, zure lan bizitza nondik nora bideratuko duzu?

Atsedean hartu nahi dut, lehenik eta behin. Nire ibilbidea kirolarekin lotuta egon da beti, eta kirolaren mundura bueltatzeko asmoa daukat.

Udal politikagintza uztera zoaz, baina oso aktibo ikusten zaitugu Andoni Alvarezen aldeko hauteszerrendan.

Erreleboa emateko hortxe izango naiz. Ikasitako guztia gure egitasmoari eskaini nahiko nioke. Kostata eta halabeharrez, udalgintzari buruz asko ikasi

dugu, eta hori besteen esku uztea dagokigu orain. Behar dutenerako alboan izango naute.

Faltan botako duzu Udaletxeko erritmoa eta dinamika?

Egoera horretatik pasa direnek horixe adierazi didate, baina nire kasuan ez dut uste horrela izango denik. Agintaldia bukatu eta oporretara noa, eta ondoren uda dator. Beraz, distantzia hartzeko denbora tartea izango dut.

Zer ikasi duzu denbora tarte honetan?

Kirol mailatik nator, eta mundu horretan kudeaketa oso es-tua da. Baliabide gutxi daude eta baliabide horiei zukua ater behar zaie. Denetik egin beharra dago. Nire kasuan, esaterako, sekula ez nuke pentsatuko ogasun arloari gustua hartuko nionik. Arlo ekonomikoa, eta ez bakarrik Udalekoa, oso interesgarria egiten zait.

Eta, bestetik, oso interesgarria da hirigintza arlo sozialaren ikuspegitik lantzen denean.

Zer aldatuko zenuke zure ibilbidean, aukera izango bazenu?

Hainbat gauza hobeto egin zitezkeen, ez dugu beti asmatu. Erabakiak hartu behar dira askotan, eta egindako akatsak hurrengoan hobeto jokatzeko baliagarriak izan dira.

Zure alderdikoak ez diren beste ordezkari politikoei zein oroitzen zaiten gordeko duzu?

Denetik egon da denbora tarte honetan. Udalgintzan arlo politikoa eta pertsonala dago, eta orokorrean jendeak hori bereizten badaki. Borroka politikoa ez da pertsonala, eta hori barneratzea eskertzekoa da. Agintaldi hau askoz errazagoa izan da, alde horretatik. Aurrekoa askoz zailagoa izan zen.

Denok ere ikasi dugula esan-gu nuke.

"2011KO HASIERA HARTATIK INOZENTZIA ETA GENUEN ILUSIOA GOGORATZEN DITUT"

"POZ HANDIA EMATEN DIT ARRATE PILOTALEKUA NOLA GERATU DEN IKUSTEAK"

"BORROKA POLITIKOA EZ DA PERTSONALA, ETA HORI BARNERATZEA ESKERTZEKO DA"





Mikel Pagola, Urnietako alkatea. AIURRI

Agintaldiaren balorazioa, alkatearen eskutik

MIKEL PAGOLA URNIETAKO ALKATEA

Alkatetzan egin ditu bi agintaldi oso, eta hirugarrenari ekiteko prest dago. Hauteskunde Orokorren eta Udal hauteskundearen artean Aiurri astekariari elkarrizketa eskaini dio

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Espainiako Kongresurako eta Senaturako Hauteskunde Orokorrek pasa berri dira. Zein da estatu mailan eta udalerrian egiten duzun balorazioa?

Zorionez, arriskutik kanpo geratu gara eskuin aldeko hiru alderdien aliantza hori ezerezean geratu delako. Euskadirentzat hain kaltegarri izan zitezkeen neurriak, beraz, ezingo dituzte

aurrera eramane. PSOEak akordioetara iristeko beharra dauka orain, eta Euskal Herriko ordezkariak dugun alderdiok Euskadiko Agenda negoziatzeko aukera izango dugula uste dut.

Udalerrian parte hartze handia izan zen, %75aren bueltan. Ordezkatzen dudun alderdiari dagokionez, hauek ez dira historikoki gure hauteskundeak izan eta hala ere igandean irabazi egin genuen. Eskerrak eman nahi dizkiet gudan konfiantza ipini zutenei.

Zure azken egunak dira, agintaldi honetan. Alkate eta alkategaia izango zara, nola bizitzen da egorri hori?

Gaizki, egia esan. Alkategaia modura denbora gehiago izan nahiko nuke, datozen hurrengo lau urteetarako erronkak hobeto prestatu ahal izateko. Baina alkate naiz eta agintaldia ez da oraindik amaitu. Ekimen asko abian ditugu, eta horiek ere ondo itxi behar ditugu. Denbora kudeatzeko arazoekin nabilt.

Nola nahiko zenuke urnietarrek zu gogoratzea?

Konpromisoarekin. Herriarrikiko eta herritarrekiko konpromisoarekin. Udalarri lasaitasun giroa eman nahi izan diogu, herriaren alde eginez eta krispazioa ahaztuz. Erdigunean herritarrek ipinita, herritarrentzat onena lortzeko lanean ari gara.

Hartu emanetarako erraztasuna izatea herri bateko alkate izateko gakoa al da?

Ona da, baina batzuetan txarra izaten da. Mugarik ipintzen ez denean, zailtasunak sortzen dira. 24 orduz alkate zara eta norberak ez baditu mugak jartzen, heritarrari uneoro zuregana gerturatzeko aukera zabaltzen diozu. Niretzat aukera bat izan da, horrela bizi izan dut.

Zortzi urteak jarraian baloratzeko gai zara? Ala agintaldiz agintaldi oroitzea nahiago duzu?

Bi agintaldi ezberdin izan dira. Bigarrenean emaitza hobeak lortu genituen, eta gehiengo osoa izan arren, lehen agintaldian bezala lan egiten ahalegindu gara. Bakarrik erabakitzeak aukera izanda ere, gainerako alderdiei eskua luzatu diegu. Nik uste jokabide horretan jarraipena egon dela.

Alkate izateak zeharkalteak sortzen ditu, familian akaso. Ana Carrere Andoaingo alkateak dio desgastea handia dela. Zein da zure iritzia? Zer diozu zuk?

Gauza askori uko egiten zaio. Alaben garapenaren lekuko izateari, adibidez. Bat egiten

dut Ana Carreren adierazpenarekin. Ilea beltz samarra daukat baina barnetik 'kana' dexente izango ditut, eta pentsatzen dut Carrereri ere berdin gertatu zaiola.

Maribel Vaquero alboan eduki gabe, babes handia eta ezagutza maila handiko kidea galduko duzu. Faltan botako duzu?

24 urte egingo ditu Udalean eta faltan botako dugu. Kasu nabarmenena berea da, Udal kudeaketaren ezagutza handia duelako. Halaber, aukera berria zabalduko zaigu guri. Senatuan lortuko duen ordezkariarekin harreman zuzena izango du estatu mailako administrazioarekin. Solaskide zuzen bat irabaziko dugu.

Miren Martiarena gizarte zerbitzuetan, Maripi Sarasola hezkuntzan eta euskaran, Koldo Aramendi, Manuel Mayoza..., bakoitzak bere esparruan egin duen lana ez dut ahaztu nahi. **Udal kiroldegi berria izan da agintaldiko egitasmo handiena?**

Agintaldi hasieran etorkizuneko Urnietara garatzen hasteko aukera eman genien herritarrei. Udal gerakinetik lau milioi euro zeuden eta Udal kiroldegia eta Etenetako igogailua martxan jartzea erabaki genuen. Egitasmoak aurrera eramango ditugu eta gastua orotara 8-9 milioi eurokoa izango da. Etenetako igogailua martxan izango da aurtun, eta agintaldia amaitzerako kiroldegiko lanen esleipenari bidea eman nahi diogu, udan eraikitze lanei hasiera emateko.

Kiroldegia dagokionez, hainbatek igerileku estalia eskatu dute. Andoainen, aldiz, igerileku estalia dago, eta batzuk irekia eskatzen ari dira.

Errazena litzateke zerbitzu guztiak eskaintzen dituen kiroldegia egingo dugula esatea, baina koherentziaz jokatu behar dugu. Ez da inbertsioa bakarrik, kontutan hartu behar diren gerora sortzen diren kostuak. Beterri-Buruntzan kirol eskaintza osagarria dago, eta inguruko herritarra joateko aukera badago.

"EMOZIONALKI, ASIER NIEBLA GAZTEAREN KASUA KUDEATZEA GOGORRA IZAN ZEN"

Fase honetan igerileku estalia ez da aurreikusten. Aurrera begira aukerak hor daude, espazio berriak sortuko baitira. Urnietako populazioa igotzea lortzen baldin bada, kiroldegia erabiltzeko bazkidetza gehiago lortzen bada, aurreikusi daiteke. Gaurko egunez igerileku estali batek sortuko lituzkeen gastuak kubritzeko-pertsonal gastuak, energia,...- beste zenbait zerbitzu emateari utzi beharko genioke. Zeintzu? Hori oso zaila da erabakitzen. Kirol erabiltzaile gehien dituzten jarduerak kontutan hartu ditugu, lehen fase honetan.

Ur edangarriaren zerbitzua Añarbek bereganatuko du. Zu zeu erabaki horren oso aldeko agertu zara.

Herrigunearen eta industriguneen %90a dagoeneko Añarbek bideratutako ura kontsumitzen ari da. Landagunean gure ur propioa erabiltzen aritu gara. Agintaldi honetan Ur Konfederazioak landaguneko ur biltegi baten lizentzia aldatu digu, erabilgarri izan daitekeen ur erabilera nabarmen murriztuz. Ikusita eskualdeko beste herri batetan euren ur biltegi batetik herriaren heren batean kalte arinak izan zirela, herritarrek babestea lehenetsi dugu. Indarrean dugun hitzarmenarekin urnietarren %99ari Añarbeko ura iritsiko zaio.

Hondakinen harira, kosta da baina badirudi Urnietan emaitza onak lortzen ari zaretela.

Apustu handia egin zen bere garaian, eta herritarrei motibazioa eta inplikazioa eskatu zaie. Edukiontzia itxiak ipini ditugu organikoa eta errefusa bereizteko. Organikoa egunero zabaldu daiteke, eta errefusa astean bitan. Egon badago sistema honekin ados ez dagoen jendea, eta hondakinak gaizki bereizten ari dena. Baina bilketa selektiboaren portzentaia %71 inguruan dago. Lauzpabost urte atzera %35ekoa zen. Garapen ona izaten ari gara.

Aurrerantzean portzentaia hori handitzea kosta egingo da. Espero dezagun orain ditugun erresistentzia horiek gainditzea

"URNIETAKO %99ERA IRITSIKO DA AÑARBEK ESKAINTZEN DUEN URA"



Pagolak bi agintaldi oso egin ditu Urnietako alkate postuan. AIURRI

eta piskanaka portzentaia handitzea.

Landagunean apustua egin dugu, txipa duen edukiontzia ipiniz. Edukiontzia marroiak ipini nahi ditugu, eta mankomunitateko lehen herria izango gara. Landagunean bizi diren guztiak ez dira baserritarrek, eta horiei ere edukiontzia gertu jarri behar zaizkie.

Eskualde mailako erronka handiena garapen agentzia da.

Bai, eta uste dut Urnietan, Usurbil eta Astigarraga eskualdeko herri txikienentzat abantaila izango dela. Onura ekarriko digu agentzia sortzeak. Eta ez bakarrik enpleguan eta garapen ekonomikoan. Gizarte Zerbitzuetan ibilbide bat hasi dugu, eta agentziaren bitartez jarraipena emango zaio. Kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko ezinbestekoa da garapen agentzia sortzea.

"ESKUALDEKO GARAPEN AGENTZIA SORTZEAK ONURAK EKARRIKO DIZKIGU, ALOR EZBERDINETAN"

Urnietako jaietan edo gizarte bizi-tzan, une honetan, eragileen falta nabaritzen da. Zein izan daiteke arrazoiak, zure ustean?

Nekealdi bat izan daiteke. Eragile lanetan gehiago balira, hobe. Susmoa dago eragile lan ezberdinetan batetik bestera antzeko jendea dabilela, eta horrelakoe-tan nekea gailendu daiteke. Herritar askok jai egiteko gogoia dauka, baina antolaketa lane-tarako jendea bilatzen arazo gehiago dago. Hausnarketa sakona egin beharko da. Nola lagundu edo nola erraztu aztertu beharko da, herri dinamika eta herri nortasuna sustatzen jarraitzeko.

Aurkari politikoen inguruan zer esango zenuke? PSE-EE urrun samar dagoela dirudi, EH Bilduren jarrera erakitzailea nabarmendu izan duzue...

Urnietako udaletxearen kasua horixe da. Gehiengo izan arren

gainerako alderdiekin akordioetara iristen saiatu gara, babes handiagoa izatea komenigarria izaten delako.

EH Biduren jokabidea erakitzailea izan da, eta eurekin askotan akordioetara iritsi gara. PSE-EEekin gehiago kosta izan zaigu.

Gure aldetik jokabide berdinarekin jarraitu nahi dugu, eta gainerako alderdiek jarrera hori ere izatea espero dugu.

Asier Nieblaren gertaera izan da akaso agintaldi honetan kudeatzea egokitu zaizun egoerarik zailenetakoa?

Bai. Donostian berriki beste gazte baten heriotza izan da, eta Donostiako alkateak gertaera Urnietako gaztearen kasuarekin parekatu zuen. Justifika-zinak diren gertaerak dira. Emozionalki, Asier Nieblaren kasua kudeatzea gogorra izan zen. Familia bat kaltetua izan da, eta ez da kasua itxi. Epai-keta hasi gabe dago eta prozedura konplexua izaten ari da. **Zer da amaitu gabe geratu zaizuna?**

Gauza asko, eta seguru nago lau urte barru ere gauza asko egiteke izango direla. Ona da hori, mugimendua eta bizitza dagoen seinale da. DBHko zentroaren apustua aipatuko nuke. Jaurilaritzak urratsak eman ditu, inbertsio mapatan sartu duelako. Babiloniko eremua lortzean, Udalak plan partziala garatuko du eta Jaurilaritza aurrera egiteko prest dago. Prozedura gauzatzen ari da.

Bestalde, hirigintza alorra garatzear dago. 30 etxebizitza egin dira. Babilonikoa eta Er-motegikoa, ordea, Jaurilaritzaren Ingurugiro sailaren txostena jasotzeko zain daude. Hori lortuta, hirigintza alorreko bi egitasmo horiek abiaraziko dira.

Agintaldi amaieran ez bada, agintaldiaren hasieran bi egitasmoak mahai gainean izango ditugu. Herrian bizi nahi duten urnietar guztiei bertan bizitzen jarraitzeko aukera eskaini behar diegu.

Eta bada zerbait beste modu batera egingo zenukeena?

Hainbat egitasmo errazago eta azkarrago egiteko aukera izatea eskertuko nuke. Administrazioaren sarea oso konplexua da, eta askotan erraza dirudiena luzatu egiten da. Egitasmo asko nahi baino gehiago luzatzen ari dira.

Herritarrei gauzak errazten gabiltzan bezala, administrazioan lan egiten dugunoi ere erraztasun berdina izatea gustatuko litzaiguke. Hobetzeko esparru handi bat dago hor.

Alderdikide batzuk hizpide izan dituzu elkarrizketan. Badoazen aurkari politikoei buruz zein hitz eskainiko zenizkioke?

Kargu guztiei, baita aurkeztuko diren guztiei ere, errespetu handia zor zaie. Gaur egun pausoa ematea konplexua baita. Doazen artean, batez ere, Mikel Izagirrerri eskerrak eman nahi dizkiot lau urte hauetan izan duen jarrera erakitzaile-gatik. Animoak eman nahi dizkiot. Beste erronka batzuk ditu orain. Bizi ditzala, eta indartsu bizi ditzala erronka berri horiek. Itziar Artolari agintaldia gogorra egin zaio, baina indartsua da eta erronka politak ditu aurretik. Zortetik onena opa diot. Eurekin izan dugun harremana eskertu nahi diet.

Ivan Haro alderdi sozialistako ordezkaria ez da berriro aurkeztuko. Diferentziak izan ditugu, baina elkarri errespetua erakutsiz jokatu dugu beti. Hari ere nire esker ona adierazi nahi diot.



KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



HAUTES-ZERRENDAK

MAIATZAREN 26KO UDAL HAUTESKUNDEAK ANDOAIN ETA URNIETA

Andoaingo eta Urnietako hautagaitzak datorren maiatzaren 26ko Udal hauteskundeetara

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituzten udal hauteskundeetarako zerrenda ofizialak, pasa den apirilaren 24an. Hauteszerrendak, argitaratu diren hurrenkeran:

ANDOAIN EH Bildu

1. Andoni Alvarez Lete.
 2. Esti Mujika Tolaretxipi.
 3. Jon Zulueta Berastegi.
 4. Garazi Usandizaga Zubiria.
 5. Julian Lopez Aracama.
 6. Tere Etxeberria Arteun.
 7. Xabier Fondon Pajares.
 8. Larraitz Arriola Larrarte.
 9. Estebe Lopez de Munain.
 10. Alazne Urija Jaunarena.
 11. Andoni Arribillaga Elola.
 12. Ixiar Ansa Echeverria.
 13. Antonio Calleja Letamendi.
 14. Domi Lucero Sanchez.
 15. Txomin Otaegi Juanicorena.
 16. Atsegiñe Garcia De Marco.
 17. Roge Miguez Rodriguez.
- Ordezkoak:
1. Ainhoa Zabala Lasarte.
 2. Jose Cruz Oartzun Labayen.
 3. Ana Carrere Zabala.

EAJ-PNV

1. Marijose Izagirre Iturzaeta.
2. Mikel Arregi Aranburu.
3. Iñaki Egibar Larrañaga.
4. Sagrario Ruiz Fernandez.
5. Imanol Goenaga Egibar.
6. Andoni Elozegi Ezkurdia.
7. Xole Irigoras Baldas.
8. Gorka Artola Beobide.
9. Jose Luis Huici Leiza.

10. Arantxa Alonso Irigoras.
 11. Aritz Amondarain.
 12. Ainhoa Elola Aramburu.
 13. Agurtzane Irigoras.
 14. Alexander Huitzi Alfonso.
 15. Esther Arizmendi Britt.
 16. Ramon Carrera Berastigi.
 17. Edurne Brit Ponce.
- Ordezkoak:
1. Andoni Baltasar.
 2. Nerea Arregi Ormazabal.
 3. Iñaki Irulegi Unzalu.

PSE-EE

1. Maider Lainez Lazcoz.
2. J.Luis Verdasco Gutierrez.
3. Ascen Parron Peguero.
4. Petra Romero Pozo.
5. Oscar Mendo Gonzalez.
6. Mercedes Luis Alfonso.
7. Raquel Rodriguez Exposito.
8. Raquel Caballero Madrid.
9. Daniel Garcia De La Calle.
10. J.Francisco Muñoz Muñoz.
11. Oscar Garcia De La Calle.
12. Azucena Galo Pinell.
13. Daniel Nieto Fuente.
14. Almudena Lamaza Vadillo.
15. Marino Rodriguez Alcon.
16. Luisa Fuentes Marquez.
17. Estanis Amuchastegi.

PP

1. Juan Carlos Cano Aristoy.
2. Maria Carmen Vigueras.
3. Santiago Cañete Corchero.
4. Paloma Manzano Cruzado.
5. Alejandro Zamora Lopez.
6. Arturo Moraleda Alvarez.
7. Luis Alberto Mur Marin.
8. Gonzalo Perez Guerra.
9. A.Maria Garcia Velazquez.

10. Carmen Hernandez Diaz.
 11. Luis Corres Avendaño.
 12. Jose Luis Perez Nuñez.
 13. F.Javier Del Corral Gros.
 14. Maria Isabel Florez Bielsa.
 15. Ana Maria Valle Villanova.
 16. Oscar Ocaña Rincon.
 17. M.Luisa Galainena Soler.
- Ordezkoa:
- Trinidad San Roman Nuñez.

Elkarrekin Podemos

1. Tere Santana Rubio.
 2. J.Maria Iparragirre Balda.
 3. Antonia Abello Vila.
 4. Julen Lorenzo Rivas.
 5. Olga Hernandez Montero.
 6. Jorge Mourinho.
 7. Virginia Ayerbe Iribar.
 8. Nieves Brea Amurrio.
 9. Nagore Zalakain Azpiroz.
 10. Joaquin Godoy Rolo.
 11. M.Victoria Caño Sanchez.
 12. Rene Velazquez Hernandez.
 13. Maria Romana Valeria.
 14. Alvaro Irastorza Icaceta.
 15. Josefa Pereira Rivas.
 16. Raul Mendez Laso.
 17. Lorena Colas Canales.
- Ordezkoak:
1. Dionisio Murillo Sanchez.
 2. M.Coro Barbero San Jose.
 3. Josefa Canales Collado.

BOSNA HAUTES-ZERRENDA AURKEZTU DIRA UDAL HAUTESKUNDEETARA, BI HERRIETAN

URNIETA EH Bildu

1. Ainara De Miguel Berasategi.
 2. Ainhoa Jauregi Cabezon.
 3. Mikel Legarreta Astiasaran.
 4. Nekane Ubillos Zipitria.
 5. Xabier Yurramendi.
 6. Itziar Artola Bedia.
 7. Jesus Alfonso Martin.
 8. Aranzazu Fernandez.
 9. Aitor Aldasoro Intxausti.
 10. Jesus Gonzalez Mateos.
 11. Hanitze Jover Lasa.
 12. Izaskun Labat Marco.
 13. Mikel Ezeiza Arratibel.
- Ordezkoak:
1. Maria Carmen Urdangarin.
 2. Mikel Izagirre Rekondo.

EAJ-PNV

1. Mikel Pagola Tolosa.
 2. Jorge Segurado Iriondo.
 3. Lucia Goñi Martínez.
 4. Agurtzane Mercader Ubillos.
 5. Juan Luis Goikoetxea.
 6. Mikel Artola Pagola.
 7. David Rosco Jorge.
 8. M.Guadalupe Martiarena.
 9. Amaya Vaquero Montero.
 10. M.Pilar Sarasola Bulman.
 11. Manuel Mayoz Ostolaza.
 12. J.Maria Santos Anabitarte.
 13. Maribel Vaquero Montero.
- Ordezkoak:
1. Beñat Goenaga.
 2. Alejandra Arrieta.
 3. Jose Luis Aramendi.

PSE-EE

1. Herme Gonzalez Moran.
2. Consuelo Frutos Gonzalez.
3. Maria Belen Alfonso Cuevas.

4. Jose Guirado Novo.
5. M.Lourdes Navais Paino.
6. J.Luis Corpas Rodriguez.
7. Leyre Gonzalez Corchero.
8. P.Maria Pezonaga Romero.
9. Francisco Javier Prado.
10. Paula Torres Busto.
11. Juan Jesus Doce Alvarez.
12. Jose Alfonso Guerrero.
13. M.Pilar Fernandez.

PP

1. Angel Alonso Alonso.
2. F.Javier De La Torre.
3. Modesto Gonzalez Quintana.
4. Blanca Guerra Sotelo.
5. Inmaculada Crooke.
6. Cecilio De Pedro Clemente.
7. Manuel Pizarro Martin.
8. Alejandro Cano Garcia.
9. Loreto Bacariza Cebreros.
10. Mercedes Martinez Yurrita.
11. M.Dolores Gonzalez.
12. Maria Del Carmen Ruiz.
13. Jesus Angel Lopez.

AULKI ZURIAK (EB).

1. Daniel Lizarralde.
2. M.Mar Rodriguez.
3. Antonio Alier.
4. Virginia De la Parra.
5. Ivan Romaña.
6. Claudia Alonso.
7. Ramón Posada.
8. Rosaura Perez Marrero.
9. Roberto Asensio Yusta.
10. Rosa María García Molina.
11. Oscar Sanz Miguel.
12. Saioa Rodriguez.
13. Jon Olaziregi Alonso.

*Iturria: Gipuzkoako boletina.

PROTAGONISTA

"Astero-astero bidaien eskaintza berritzen dugu"

KEILA SOLANA AUKERA BIDAIAK AGENTZIA ANDOAINGO KALE NAGUSIAN

Erredakzioa ANDOAIN

Negozia ireki berri duzu Andoaingo Kale Nagusia.

Aurkeztu ezazu zure burua.

Turismoaren alorretik nator.

Eskozia aldean ibili naiz azken zazpi urteetan. Bidaien inguruan lanean aritu naiz, ibilbideetan eta jardueretan espezializatuta zegoena.

Bidaia agentzia sortzeko ideia esperientzia horren ondoren sortu zitzaidan.

Egun hauetan jende asko ikusiko du zure negozioaren erakusleihua, Santa Krutz jaiak hasi baitira. Zure negozioa ezagutarazteko aukera ona.

Halaxe da, bai. Jende asko igarotzen da Kale Nagusitik, eta herritar asko sartu da dendara. Erakargarria zaie, nonbait.

Kale nagusia biziberritzeko beste negozio bat gehiago. zer moduzkoa hasiera?

Jendea oso pozik ikusten dut, negozio berri bat irekitzeak kaleari bizitasun gehiago ematen baitio. Herritar batzuk emandako pausoa eskertu didate. Herria bizirik behar dugu.

Zehazki bidai estiloren batean espezializatuta zaudete?

Bezeroak bidaia mota guztiak hemen topatuko ditu. Neu, ordea, esperientzia zalea naiz. Herrialde batera joanez gero, erroak edo sustraiak ezagutzea interesgarria da.



Bidaia agentzia zabaldu berri dute Kale Nagusian. AIURRI

Bidaiazerakoan bertakoa bazina bezala ibiltzea nahi izaten dut. Eta bidaia agentzian hori eskaintzen saiatzen gara.

On line zerbitzua eskaintzen duzue?

Bai. Aukerabidaia.com webgunean gure bidaia guztiak sartuta daude.

Hurrengo asteetarako eskaintza interesgarririk ba al duzue?

Eskaintza piloa ditugu, baina nire aholkua bezeroa dendara hurbiltzea litzateke. Astero-astero eskaintza berriak sortzen dira.

Zuretzat zein litzateke plan polit bat?

Urrutira baldin bada, edozein! India ezagutu nahi dut, baina barrutik. Peru iaz ezagutu genuen, hango jendearen bitartez. Eta hori oso plan polita da.

Udarako eskaintza interesgarririk ba al ditzuzue?

Aukera asko ditugu. Karibe aldera joateko hegaldi berriak sortu dira, eta eskaintza ugari eta onak ditugu. Facebook orrialdean, bestalde, ia egunero eskaintzak berritzen ditugu.

GORA ETA BEHERA



Auzolana, ezinbestekoa

Apirilaren 27an alebin mailako Joxan Huizi futbol memoriala antolatu ahal izateko lagun askoren eskulana behar izan zen. Dozenaka lagun elkartu ziren bazkarirako, eta mahaira gerturatu zirenerako paella ederra prest zuten. Argazkiko herritar taldeak lan ona egin zuen.



Urnietan barrena

Ibilgailua dagoeneko aski ezaguna da. Internet mundutik at bizi denari Google enpresako ibilgailua dela adierazi behar zaio. Gaikaldean duten kamara sofistikatuari esker, mundu osoko kaleen argazkiak ateratzen dituzte. Irudi bidezko mapak sortzen dituzte, Internet sarean ipintzeko.



Hutsuneak ikusmina piztu du

Zumea kaleko bi eraikin zaharrak eraitsi eta gero, sortu den hutsunean ikuspegi berria zabaldu da. Paisaia berriak ikusmin handia piztu du oinezkoen artean. Argazki ugari atera dizkiote eraitsitako eremuari. Eraikin zaharrak oroimenean geratuko dira. Etxebizitza berriak eraikiko dituzte bertan.



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubieda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



Mikel Arregi, Fernanda Irazu, Jon Ander Ubeda, Maddi Trutxuelo eta Ainhoa Gil Zubiaurreko etxeko balkoira igo ziren, Aizurriko lantaldea ordezkatzuz. AIURRI

Berriemaileak jaiari hasiera eman zionekoa

Aizurri hedabideak eman dio hasiera aurtengo jaiari, hamaboskaria argitaratzen hasi zela 25 urte betetzen direnean. Albistea ematera ohituta dagoen lan taldea Zubiaurre etxeko balkoira igo zen, euskararen eta tokiko informazioaren aldarria egiteko

Erredakzioa ANDOAIN

Aizurriko lankideak jaien hasierako ekitaldira hurbiltzera ohituta zeuden. Aurtengoa, ordea, ez ohikoa izan da jaien hasierako protagonismoa bereganatu baitzuten. Jai Batzordeak festen hasierako pregoia zabaltzeko aukera eskaini zieten, eta Aizurriko lankideek gonbitea esker onez onartu zuten.

Euskarazko tokiko hedabideen garrantzia nabarmendu zuen Jon Ander Ubeda zuzendariak, jaien hasierako pregoian. 25 urte

dira hamaboskaria argitaratzen hasi zenetik, eta Aizurri geroztik hedabide taldean bilakatu da. Aizurri astekariarekin eta Aizurri.eus webgunearekin osatzen baita eskualdeko informazio eskaintza. Urte hauetan guztietan alboan egon diren merkatariei, harpidedunei, Andoaingo Udalariei eta gainerako erakundeei esker ona adierazi zien Ubedak, "Gora Andoain!" oihukatu aurretik. Jendetza bildu zen Zubiaurre etxearen parean. Bertara ere, hutsik egin gabe, Erraldoien eta Bu-

ruhandien konpartsa eta Zumea-tarra danborra hurbildu ziren.

Festazaleentzat aukera zabala zegoen, jaien hasieran: Txosnagunean iaz kalean kantari arituz Tokan2 La Polla bikotea, Santa Krutz elizan Olagain txistularien eta adiskideen emanaldi berezia eta Zumeatarraren danborrada. Hainbat festazaleentzat jaia ordu txikiak arte luzatu zen. Biharamunean, goizeko lehen orduan, ez ziren gutxi Kale Nagusian bezperatik parrandan zebiltzan festazaleak.



Buruhandiak jaien hasierako protagonista dira Santa Krutz jaietan. AIURRI



Buruhandiak Kale Nagusian, Basteron hasi eta Zumea plazan amaitu zen kalejiran. AIURRI



Olagain, Alberto Agirre abesbatza eta Soinuak Santa Krutz elizan, jaien hasierako emanaldi berezian. AIURRI



Elizako emanaldi berezian, Urki taldeak erakustaldi ederra eskaini zuen. AIURRI



Maiatzaren lehenean, Punttuka eskolako bertsolariak eta Maizorri txalaparta eskolako kideak kalejiran irten ziren. AIURRI



Zumeatarrako hainbat kide, Santa Krutz ermitan saioa eskaini eta gero. AIURRI


Web Irudiak Bideoak

2019.3.21

SANTAKRUTZAK 2019

www.aiurri.eus

Albisteak
Argazkiak eta Bideoak
Agenda atalean egunez egunekoa



AIURRI

Parte hartze handia haur krosean



AIURRI



AIURRI



Haurren krosetan zenbait irudi.

Gurutzaga etxeko lasterketan garaile

LASTERKETA Maialen Gurutzagak Santa Krutz jailetako lasterketan sasoiko dagoela erakutsi zuen, Hoki Guerrero urnietarrari aurrea hartuz. Gizonezkoetan, Gonzalo Fuentesek azken metroetan garaitu zuen Kamel Ziani. Jon Lanz izan zen lehen andoaindarra.




Ana Ruiperez lasterkaria, atzetik azkarrago zetozen tropeltxoaren aurretik. AIURRI



Jon Ezeizak 1978ko lehen edizioan ere parte hartu zuen. AIURRI




Olatz Hernandez eta Marijose Nuñez andoaindarrak, helmugara iristen. AIURRI




Jon Lanz izan zen lehen andoaindarra, 35:11ko denborarekin. AIURRI



Gonzalo Fuentes, Kamel Ziani eta Raul Gomez, aurtengo podiuma. AIURRI



Laura Corchero lasterkaria. AIURRI



Maialen Gurutzaga. AIURRI

"Etxean garaile izatea polita da"

Maialen, zorionak! Etxean bertan garaipen handia lortu duzu.

Oso polita da. Herriko lasterketa da, eta bertan parte hartu eta irabaztea polita da.

Sasoiko zaude gainera, postu bikainak lortuz. Loatzoko igoera irabazi berri duzu.

Aurten saiatzen ari naiz, eta gustura nabil.

Pilatzen ari zaren eskarmentua zenbaterainokoa da garrantzitsua?

Bai, beharrezkoa da. Haurrak eduki eta gero eskarmentu piska bat hartu behar izan nuen. Eta beharrezkoa da, aurrera egiteko.

Nolakoa lasterketa izan da?

Hasieran beste lehiakideak gertu ikusten nituen, eta nire erritmoa jartzen ahalegindu naiz. Lasterkari bat gerturatu zait eta elkarrekin ibili gara. Ez zuen biotako inork aurrera egitea lortzen, eta maldan behera datorren azken txanpa horretan aurkaria atzean geratu da. Azken metroetara bakarrik iritsi naiz.

Markaje handia, beraz. Bai, gaurkoan bai.

Pozik, beraz?

Bai. Lasterketa gaurkoan herrian zen, eta guztion nahia izaten da herrian garaile izatea.



Alebin mailako neskak, tartean Euskalduna taldeko jokalaria. AIURRI

Futbol festa Ubitarte zelaian

FUTBOLA Alebin mailako futbol jaia bilakatu zen Euskaldunak antolatu zuen Joxan Huizi memoriala

Euskalduna futbol taldea ANDOAIN

Larunbatean ospatu zen Joxan Huizi Euskaldunako lehendakari ohiaren izena daraman futbol festa. Alebin mailako 250 neska mutil inguru bildu ziren. Kirol arloari dagokionez, Danena K.E. mutiletan eta Goierri Gorri F.K. nesketan izan ziren garaileak, S.D. Euskalduna eta Añorga K.E. finalista izan ziren. Mutiletan Zizurkilgo taldea markagailuan aurretik jarri zen lehen zatian, baina bigarrenengoan, urdinek berdinketa lortu zuten. Penaltietan Danearentzat izan zen garaipena.

Nesken finala ere oso parekatua izan zen eta neurketa 0-0 amaitu zen. Kasu honetan Goierri Gorri taldea hobeto aritu zen penaltietan, eta lehen postua eskuratzea lortu zuten.

Lehen aldiz jokatzeko txapelketa izanik, zalantza eta beldur apur bat bageneukan zuzendaritza taldearen barruan

dena behar bezela irten zedin, eta hobetu daitezkeen gauza batzuk egon zirela uste badugu ere, orokorrean dena nahi bezala irten zen eta parte hartzaile guztiak eta baita jarraitzaileak ere egun ederra pasa izana espero dugu.

Eta nola ez, gure eskerrik beroenak Joxan-en familiartekoei eskainitako laguntza guztiagatik; bertan parte hartu duten talde eta jokalariek guztiak; txapelketako babesle nagusi izan diren Andoingo Udala, Caja Rural eta Super Amara-ri; egun osoan zehar musika eta sekulako giroa ipini zuen DJ Nemux-entzat; beraien laguntza eskaini zuten talde urdineko hainbat jokalariek eta entrenatzaileei; eta azkenik, muxutruk eta borondate hutsez festa hau aurrera irten zedin lagundu duten dozenaka bolondresi. Milesker guztioi!!

Hurrengo urtean ere espero zaituztegu!!



Euskalduna taldeak alebin mailako txapelketa antolatu zuen.. UKE

Ainhua Jauregi eta Maialen Gurrutxaga garaile



AIURRI

LASTERKETAK Andoingo eta Urnietako lasterkaria asteburuan protagonista bilakatu ziren, Loatzoko igoeran eta Pagoetako mendiko lasterketan irabazle izan zirelako. Biak ala biak lasterketa ugaritan parte hartzen ari dira, eta emaitza onak lortzen ari dira. Zorionak bi lasterkariei!



PAGOETA

Andoingo areto futbol txapelketa

EMAITZAK. 14. JARDUNALDIA

Ganbara Bi-Aker Beltz	3-6
Carpinteria Antonio-Ganbara	4-4
La Almazara-Keler	2-13
Batzokia-D.A.D. Kutxa	1-7
Brew & Roll-Lanbroa	1-3
Academia G.F.-Ekhia	3-2

Allurralde kiroldegia Santa Krutz jaietan

Ostegunean, larunbatean eta igandean ordutegia ohikoa izango da. Ostiraleko ordutegia jai eguneko da: 9:00etatik 13:15etara. Ostiralean ez da ikastarorik izango.



Infantil mailako txirrindulariak, lasterketa hasi aurretik. AIURRI

Santa Krutz jaietako lasterketa

TXIRRINDULARITZA Benjamin, alebin eta infantil mailako lasterketak, Andoingo Txirrindulari Eskolaren eskutik



Alebin mailako lasterkariak Kaleberriko ibilbidean. AIURRI

Erakustaldia Andoain

JUDO Adarra Judo taldeak aurtengoan ere judo erakustaldia egin zuen. Zumea plazan aritu ziren, etxekoen eta herrikideen aurrean. Azken urteotan Santa Krutz jaietan erakustaldia egitea ohitura bilakatu da. Kimu berriak kirol jarduera horretara erakartzeko ideia ona da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Nahikari Garcia Real Sociedad taldeko eta Iberdrola Ligako izarretakoa da. Espainiarekin Munduko Txapelketa jokatzeko zerrendan sartzeko itxaropentsu da. AIURRI

“Haur asko hurbiltzen zaizkit argazki eske; hori ezin da inoiz zama bat izan”

NAHIKARI GARCIA REALEKO JOKALARIA

Genetikak futbol baloia hara eta hona eramateko dohain bereziak eman zizkion jaiotzetik Nahikari Garciari (Urnieta, 22 urte), baina adimen handia ere bai, futbola inguratzen duen bazka kudeatzen ikasteko.

Andoni Urbistondo URNIETA

Komunikabideen begiradapean dabil azken denboraldian, 16 gol sartu eta Iberdrola Ligako goleatzaile nagusietakoa delako. Espainiako selekzioarekin Mun-

duko Txapelketa jokatzeko zerrendan egin daitekeelako. Edota bizitza erdi egin duen klubak, Realak, maiatzaren 11n Grana-dan Kopako finala jokatuko duelako. Zuri-urdinen historia

laburreko lorpen handiena, ez bairrik gabe. Prentsan eta sare sozialetan gauza itsusiak irakurri behar izan ditu, egia ez diren kontuak, baina lasai dago: “kontzientzia lasai daukat, eta hala

den bitartean, arazorik ez”, dio tinko.

Zer moduz zaude fisikoki?

Ondo. Frustrazio apur bat sentitu dut azken asteetan, ezin izan baitut Espainiako Sele-

zioarekin Brasil eta Ingalaterraren aurkako lagunartekoetan parte hartu, baina tira, Espainiako Ligan ere atsedena izan dugu, eta lehiaketa falta ondo osatzeko baliatu dut. Gihar lesio arin bat izan da, haustura txiki bat, ezer seriorik ez. Prest egongo naiz Kopako finalerako.

Ez duzu lesio askorik izan.

Ez, eta eskerrak, paziente txarra bainaiz, medikuei lata ematen lehenbailehen osatzeko... Ez dut batere gustuko harmailetan egotea. Asko sufritzen dut, oso lehiakorra naizelako. Gogo faltarik banuen, irabazi dut, atsedeen behartu tarte horrekin.

Lesioek beti dute zergatiren bat.

Bai, asko gustatzen zait jakitea non lesionatu naizen, zergatik gertatzen diren. Horregatik ikasten ari naiz medikuntza, eta lesionatzen naizenean beti eskatzen diet medikuei ekografia, lesioaren eboluzioa eta beste. Lagungarria gertatuko zait etorkizunean.

Medikuntza aipatu duzula, zer moduz ikasketak? Lasaiago ari zara orain.

Urte zaila izaten ari da. Kontzentrazio asko egiten ari naiz selekzioarekin, 10-15 egunekoak, eta klaseetara joateko zeregina zaildu zait. Esfortzu handia eskatzen zaigu unibertsitatean, gero eta ahalegin handiagoa, eta nire bidea aukeratu dut. Ez dut presarik ikasketak bukatzeko, nire martxan ari naiz, gaiak ahal dudan moduan gaintitzen, baino orain beste lehentasun batzuk ditut.

Eliteko kirolaria zara, eta hala direnei unibertsitatean erraztasunak ematen dizkiete, ikasketak bukatu ahal izateko. Zurekin antzera gertatzen da?

Beno, ez irakasle denekin. Batzuek ulertzen dute, besteek ez hainbeste, egoera berria delako beraientzat. Medikuntzan ez da ohikoa eliteko kirolariak egotea, irakasletzan edo Kirol Zientzietan bezala. Badaukagu tutore berezi bat, datekin eta laguntzen gaituena, baina borrokatu egin behar dugu.

Ikasketetan apur bat lasaitu zara, beraz, azken bi urteetan.

Bai. Hirugarren mailan nago, eta bost dira. Futbolaz disfrutatu nahi izan dut beti. Azken bi urteetan futbolak eta nire jardunak hazkuntza handia izan dute, eta horri eutsi behar zaio. Goi mailan lehiatzeak exigentzia handia eskatzen du, baina aldi

berean gozatu egiten dut. Ikasketak alboratu gabe, lasaixeago arituko naiz, lehentasuna futbolari emateko.

Zerk aldarazi du zure pertzepzio hori? Bi urte atzera ez zenuen hala pentsatzen.

Bi urte atzera eskatzen zitzaigun konpromisoa ezberdina zen. Fisikoki lan gehiago dugu orain, teknikoki klubak gehiago eskatzen du, gero selekzioa dago... Egunerokoa nekagarria izaten da sarri, eta atsedena behar dugu. Neke horri egunero Bilborainoko joan-etorria gehitzen badiozu, atera kontuak. Gorputzak, buruak zer behar duen sumatzen duzu, eta norberarentzat onak edo egokiak diren erabakiak hartu, beharren arabera.

Izan ere, denbora dezente daramazu dagoeneko olatuaren aparrean.

Urte garrantzitsua izaten ari da. Munduko Txapelketako deialdian sartu nahi nuke, Realean egin dudana lan onaren ondorioz lortutako saria litzatekeelako. Behe Mailatan ere urteak egin nituen, baina orain ezberdina da. Espainiako onenekin zaude, munduko txapelketa onenean, eta asko gozatzen ari naiz. Denboraldi ona izan da, eta ondo bukatzea espero dut.

Espainiako futbol selekzioa erakusleho ezin hobea da.

Zalantzarik ez. Jokalari on asko ateratzen ari dira, bai selekzioan, eta baita beheko mailatan ere. Horrek esan nahi du Ligako taldeetan egiten ari diren lana ona dela. Onenekin lehiatzeko koskatxo bat igotzea falta zaigu, eta Munduko Txapelketa hori lortzeko aukera bikaina da.

Presio berezia sentitzen duzu Espainiako selekzioako deialdietan ohikoa bilakatu zarelako, Realean lortzen ari zaren zenbakiak ikusgarriak direlako?

Lasai nago. Realean edo selekzioan ezberdina da. Realean askoz handiagoa da, baina Espainiako selekzioan beste kide askok ni baino arreta handiagoa pizten dute, eta niri horrek lasaitasuna ematen dit. Iritsi berria naiz, jokalaria multzoa kalitate handikoa da, eta ni ikas-



Gihar lesio txiki bat atzean utzi eta prest da Kopan ezustekoa emateko. AIURRI

teko nago, eskatzen didaten zereginean laguntzen saiatzeko. Realean onartua dut erantzukizun askoz handiagoa daukadala, Espainiako selekzioan askoz apalagoa. Han ikusi, entzun eta isilik egoten saiatzen naiz. Iritsi berriak ikasteko gaude. Oso lehiakorra naiz, eta beti nahi dut zelaian egon, golak sartu, baina Realean eta selekzioan nire zeregina erabat ezberdinak dira.

Zergatik etorri da orain deialdi guztietan sartzeko sari hori?

Aspalditik ezagutzen nau Jorge Vilda hautatzaileak. Jarraikotasun bat eman dit azken hila-beteetan, eta agian lehenago ez zuen horretarako aterik ikusten. Heldutasunarekin zerikusia daukala esango nuke, eta baita ezaugarri jakin batzuk dituzten jokalaria bilatzen ari delako. Jokalari teknikoak, baina era berean erasoan azkarrak direnak, eta nik ezaugarri horiek ditut, Athleticeko Lucia Garciak, edo Atletico Madrileko Andrea Falconek bezalaxe.

Munduko Txapelketako deialdian sartzeko itxaropenik bai?

Jakina. Orain arteko deialdi guztietan sartu naiz, lesionatua

egon ez naizenean, eta horrek konfiantza ematen dit. Kopako finalean lan ona egin behar dut.

Munduko Txapelketan aritzen bazara, Nahikari Garcia bat egongo da, txapelketa horren aurrekoa, eta beste bat, txapelketa ostekoa. Horrek arduratzen zaitu?

Ez. Munduko txapelketa ez da iritsi oraindik, ez dakit han egongo naizen, eta ez dut horretan gehiegi pentsatu nahi. Gozatu egin nahi dut.

Sei urte dagoeneko Realean. Iritsi zineneko Realak, eta egungoa, erabat ezberdina da, eta zure parte hartzea bilakaera horretan funtsezkoa izan da.

Beno, ez dakit nik epaitu behar dudana funtsezkoa izan naizen edo ez... Egia da iritsi nintzenean taldea ez zegoela ondo, jaitsiera postuetan zegoela, eta gero bilakaera handia izan da. Urte txarrak pasa ditugu, eta sei urte geroago 4. eta 5. postua lortzeko borrokan murgilduta gaude, Kopako final batean. Hobekuntza horretako parte sentitzen naiz, asko ikasi dut Realean, eta horrek indarra ematen dit. Realak nire etxea da, eta aho zabalik uzten zaitu Zubietara gero eta

jende gehiago hurbiltzen dela ikusteak.

Lasai ibiltzen zara kalean, oraindik, edo dagoeneko izarra zara jendar-tearentzat?

Beno, gauza kurioa gertatzen zait Urnietan edo Andoainen. Kaletik noa eta ume pila bat hurbiltzen zaizkit, argazkiak eta sinadurak eskatzera eta beste, eta harritu egiten naiz, ze txikitatik ezagutzen ditut gehienak. Niretzat ez da zama bat, gozatu egiten dut, taldea jendearengandik gero eta hurbilago baldin badago, hobea delako.

Zure jardun onak prentsaren interes guzietatik irakurri behar izateak?

Ikasten ari naiz, pixkanaka, horretan ere. Hasieran nire jardun edo esanek ez zuten orain duten oihartzunik, baina orain bai. Albiste asko atera dira, baina horrekin bizitzen ikasi behar duzu derrigor. Gezurrak esaten dira, edo egia osoak ez, eta sufritzen dugu, baina ez da nik edo jokalaria kontrolatu ditzakegun kontuak, eta alde horre-

tatik, kontzientzia lasai daukat. Nire ingurukoek badakite nolakoa naizen, nolakoa den nire bizitza, zer pentsatzen dudana, eta horrek lasaitasuna ematen dit.

Bihar zortzi, Kopako finala. Atari-koan, erronka zail-zaila dirudi Atletico Madril menderatzea.

Zein final izaten da erraza? Granadako ez da izango, noski, baina edozer gauza gerta daiteke. Euren aurka ez dugu ongi jokatu Ligan, eta ondo ezagutzen dugu elkar, baina dena da posible. Gure lehen aldia da, eta ondo prestatuko dugu, ziur, baina horrek ez du txapela ziurtatzen. Finalak jokatzen dituztenek irabazten dituzte. Jokatzen ez dituztenek ez.

Batek daki noiz etor litekeen beste final bat, 25.000 lagun elkartu ziren Anoetan... Perspektiba gaitzen ari gara emakumezkoen futbolarekin?

Horregatik baloratu behar da egindakoa. Ez da bide erraza izan. Finalerako txartela lortu genuen egunean esan nien taldekideei, momentuaz gozatu behar genuela, historia egin genuela, lehenak izan ginela Realean, igual beste bat ez guelako ezagutuko: finala, Anoetako harmailak beteta... Disfrutatzeke esan nien. Anoetako betekada ona izan zen, baina nahi duguna da Zubietako asteburuko beteta egotea, horrek esango digu emakumezkoen futbolaren hazkuntza zenbateraino den sendoa edo ez.

Zu zeu oso ondo moldatzen zara partida garrantzitsuetan. Esan nahi da, baduzula dohain bereziren bat, aurkariak urduritzeko.

Lehiakorra naiz oso. Ez da sobera pentsatu behar aurkaria zein den, edo final bat den edo ez. Futbol partida bat da, ez besterik. Dagoeneko nahiko final jokatu ditut, ez ditut irabazi, baina talde gaztea gara, eta Atletico Madrilek eskarmentu handiagoa dauka.

Ondoren etorriko da askok jakin nahi duten/dugun galderaren erantzuna, Nahikari, zure etorkizunaren ingurukoa.

Etorriko da, noski. Finalaren ondoren argituko da.

"ANDOAINEN EDO URNIETAN NAGOELA HAUR UGARI SINADURA ESKE HURBILTZEN ZAIT"

"MUNDUKO TXAPELKETARAKO DEIALDIAN SARTZEKO ITXAROPENTSU NAGO"

"REALEAN ERANTZUKIZUN HANDIAGO DAUKAT, SELEKZIOAN APALAGO DA"

"REALEAN LIGAKO SAILKAPENEN LEHEN POSTUETAN ETA KOPAKO FINALEAN GAUDE"

"ZEIN FINAL IZATEN DA ERRAZA? GURE LEHENA DA, ETA ONDO PRESTATUKO DUGU"

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 2

URNIETA Sari banaketa

Urnietako Udalak antolatuta, haur, gazte eta helduen mailako Antia literatur lehiaketako sari banaketa ekitaldia.

19:00, Sarobe.

ANDOAIN Informazioa

Ataria, Zerga bilketa eta hondakinen informazio puntua tokiz aldatu dituzte.

Anbrosia Olabide.

ANDOAIN Erakusketa

"Emeek emana", argazki erakusketa. **Ohiko ordutegia, Bastero.**

OSTIRALA 3

URNIETA Aurkezpena

EAJ-PNV alderdiak maiatzaren 26ko Udal hauteskundeetarako hauteszerrendaren aurkezpena egingo du. Eguraldi onarekin, Batzokiaren ondoan.

19:00, Jakutegi plazan.

LARUNBATA 4

URNIETA Erromeria

Aurrera Gure Ametsak antolatuta: 10:30 San Juan plazatik abiatuz, Santa Krutz baselizara ibilaldia. 13:00 Patxi eta Konpainiarekin erromeri gidatua San Juan plazan.

14:30 Bukaera eta Oianumen bazkaria (izen ematea: agaurnieta@gmail.com).

Goizean zehar.



lazko ospakizuna, Azkorte ermitan. **AIURRI**

URNIETA Santa Krutz eguna Azkorte ermitan

11:00 Meza; 12:00 Herri kirol erakustaldia; 13:00 Bertsolariak: Loidisaletxe eta Angel Larrañaga. Trikitixa Olarte eta Larrañagarekin; 14:00 Bazkari herrikoia Oianumen (izen ematea: 943 55 66 83). Bazkalostean bertsolak eta trikitixa. Autobus zerbitzua: Azkorte bertaratu nahi duen ororentzak Pintore kaletik 9:30-14:00 bitartean. Azken igoera 12:00etan.

Goiz osoan zehar. Maiatzak 3, ostirala.

IGANDEA 5

URNIETA Erromeria

Lasartearrek antolatuta, meza, herri-kirolak, dantza.

11:00, Azkorte ermita.

ASTELEHENA 6

URNIETA Pailazoak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Urnietan, maiatzaren 24an. Sarrerak

7 eurotan salgai, Urnietako 2KN kafetegian, Hernaniko Leokadistin eta Andoaingo Aiurri eta Ernaitzan.

Sarrerak salgai: Hilaren 6an hasita.

ASTEARTEA 7

URNIETA Izen-ematea

Eguzkitan Blai! eta Kirol Udalekuetan izena emateko epea zabalik Bertan bulegoan, Lekaion eta Urnieta.eus webgunean.

Azken eguna: Maiatzak 7.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****La Ilorona**

Larunbata, 4: 19:30, 22:00.

Igandea, 5: 19:30.

Astelehena, 6: 19:30; 22:00.

Vitoria, 3 de marzo


Larunbata, 11: 19:30, 22:00.

Igandea, 12: 19:30.

Astelehena, 13: 19:30; 22:00.

Mia y el leon blanco

Larunbata 11 eta Igandea 12: 17:00.



SINOPSISIAK

**La Ilorona**

Zuz.: Michael Chaves. **Herr.:** AEB (2019). **Hizkuntza:** Gaztelania.

Generoa: Thriller, beldurrezkoa. **Aktoreak:** Linda Cardellini, Patricia Velasquez, Raymond Cruz, **Iraupena:** 93 minutu.

Ezustekoak beldurrezko filman

Tradizioan oinarrituriko pertsonaia da La Ilorona. Bere negar malkoak gaurdaino iritsi

dira. Tentsioa eta ezustekoak gogoko dituenarentzat film aproposa.

Mia y el leon blanco

Zuz.: Gilles de Maistre. **Herr.:** Frantzia (2018). **Generoa:** Drama, animaliak. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Aktoreak:** Daniah De Villiers, Melanie Laurent, Langley Kirkwood, **Iraupena:** 98 minutu.

Animalia protagonista nagusia

Neska gazte bat familiarekin bizitzera doa Afrikara, Londres atzean utzita. Egonaldian lotura berezia egingo du lehoi batekin.

Adiskidetasun horri esker Afrika osoan zehar bidaiatuko du. Santakruzak amaituta, film ederra haur eta familientzat.

PIRITX PORROTX MARIMOTOTS MUSUA

MAIATZAK 24, OSTIRALA

17:30 **URNIETA** Egape ikastolako jolastoki estalia

7€

Antolatzaile

AURRE SALMENTA:

Maiatzaren 6tik aurrera.

HERNANI

- Leokadisti, Urbieta kalea, 6.

URNIETA

- 2KN okindegia, M.Yurramendi 2, udaletxearen ondoan.

ANDOAIN

- Aiurri, Arantzibia plaza.
- Ernaitza liburudenda, Zumea kalea

SALMENTA EGUNEAN BERTAN:

16:30. Egape ikastolako jolastokiaren atarian.

AIURRI

Laguntzaile

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Ane
Ondo pasa maiatzaren 3an eta Santa Krutz jaietan. Muxu asko etxekoan partetik.



ANDOAIN
Jon
Jon Etxezarretak 6 urte beteko ditu maiatzaren 4an. Muxu potoloak etxekoan partetik.



ANDOAIN
Naroa
Naroa Irazu Romanek 10 urte beteko ditu maiatzaren 12an. Muxu handiak, etxekoak.



ANDOAIN
Pello
Oporrak, urtebetetzea, jaiak... Ederra gurean dagoen jai-giroa! Zorionak! Etxekoak.



URNIETA
Alain
Alainek 12 urte bete zituen apirilaren 28an; zorionak eta muxu potoloak.

ODOL EMAILEAK

URNIETA

Maiatzak 2, osteguna
18:30-20:30. Anbulategi Zaharrean (Denda Berri jubilatuen egoitza).



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 4 eta igandea 5
MONFORT: Aita Larramendi, 26. 943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 4 eta igandea 5
GOMEZ: Kale Nagusia, 14. 943 554892. Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

SANTA KRUTZ JAIK 2019

MAIATZAK 2

OSTEGUNA

18:30 Bizikleta festa Zumea plazan.

19:00 Tabernen arteko pintxo lehiaketa.

19:00 Txistulariak Kaleetan zehar.

18:30 Txukunak eta Fino's Band
Udal musika eskolako konboak Zumea plazan.

21:45 Zezen suzkoa Olajauna paretik Juanita Alkain plazaraino.

MAIATZAK 3

OSTIRALA
SANTA KRUTZ EGUNA

10:30 Dultzaineroak kalez kale.

10:30 Ikurriñaren jaitsiera, Olagain txistulariak eta eskopeteroak alboan dituztela. Udaletxetik Santa Krutz elizaraino.

10:30 Ezpata dantza Santa Krutz elizan, Urkiren eskutik.

11:00 Meza.

11:30 Ezpata eta Brokel dantzak, Urkiren eskutik.

11:30 Trikitilariak kalez kale.

12:00 Txakoli dastaketa elizaren parean.

14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian. Euriarekin Makaldegiko aterpean.

18:00 Elektrotxaranga Kale Nagusian.

19:00 Bakailao txapelketa Kale Nagusian.

23:00 Niña Coyote & Chico Tornado eta Inoreneroni taldeak Txosnagunean.

MAIATZAK 4

LARUNBATA

09:30 Haur mailako arrantza lehiaketa Espigoian.

10:00 Artisauak Zumea plazan.

11:00 Koadrilen arteko jokoak, Bekoplazatik hasita.

14:30 Koadrilen arteko bazkaria Bekoplazan, edo Ondarretan.

17:30 DJ Mai saio ibiltaria.

18:00 Haur tailerrak, jolasak eta puzgarriak Zumea plazan. Euriarekin Ondarretan.

20:30 Karaokea Txosnagunean.

21:45 Zezen suzkoa, Olajaunatik Juanita Alkain plazara.

22:30 Peña Santakrutz danborrada.

22:30 Ingo al deu? eta DJ Eman Emak txosnagunean.

MAIATZAK 5

IGANDEA

08:00 Gaupaseroen argazkia Zumea kaleko lorontzietan.

09:00 Euskalduna MTren irteera. Egoitza bertatik abiatuta.

11:30 Urkiren saioa Zumea plazan.

12:00 Kantu kalejira, Basterotik abiatuta.

12:00 Sagardo lehiaketa Zumea plazan.

12:00 Basataloak talogileak Zumea plazan.

13:00 Udal musika eskolako Bandaren saioa Zasa parean.

17:00 Soinuak taldea, Basterotik.

18:30 Plaza dantzak Zumea plazan, jaiei amaiera emanez.

1. TXANDA IBILTARIAK

UZTAILAREN 14Tik 26RA

2004 - 2005 - 2006

urteetan jaiotakoak

GOIERRI - ARALAR

Bazkideak 220€

Gainerakoak 260€

UDALEKU IBILTARIAK

2019

DO BE RA

2007 - 2008 - 2009

urteetan jaiotakoak

DO NOTIALDEA - OARSOALDEA

Bazkideak 150€

Gainerakoak 180€

LAGUNTZAILEAK:

2004 - 2005 - 2006

urteetan jaiotakoak

2007 - 2008 - 2009

urteetan jaiotakoak

LAGUNTZAILEAK:

PSE-EE Andoainen nagusi, eta EAJ-PNV Urnietan

KONGRESURAKO ETA SENATURAKO HAUTESKUNDEAK Parte hartze handia joan zen igandeko hauteskundeetan. EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiek bereganatu zituzten boto gehienak. Eskuin aldeko alderdien emaitza oso apala izan zen

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urnieta eremu jeltzalea da, eta nagusitasun hori beste behin ere nabarmen geratu da. Igandeko hauteskundeetan garaile argia izan zen, gainerako hiru aurkarietara alde nabarmena ateraz. Abertzaletasunaren gaua izan

zela gaineratu behar da, botoetan bigarren EH Bildu izan baitzen. PSE-EE eta Podemos izan ziren, hurrenez hurren, botoetan ordezkariak handiena lortu zuten beste bi alderdiak. Eta atzean, oso atzean, eskuin joerako PP, Ciudadanos eta Vox alderdiak.

Andoainen alderdi sozialistak tradizio handia du, eta igandean lehen indarra izatea lortu zuen, EAJ-PNVren eta EH Bilduren aurretik. Nabarmenezkoa izan zen jeltzaleek lortu zuten bigarren postua, eta baita Elkarrekin Podemos alderdiak lortu zuen

emaitza. 2016ko hauteskundeekin alderatuta botoak galdu badiutze ere, oso kontutuan hartu behar diren 1500 boto lortu zituzten. Andoainen, Urnietan eta Gipuzkoa osoan bezala, eskuineko alderdiak oso atzean geratu ziren.

Hauteskunde jarraipena aiurri.eus webgunean

Webguneak hauteskundeei buruzko atal berezia zabaltzen duen, Tokikom eta Codesyntax enpresarekin garatu duena. Herriz herriko emaitzak zabaltzen dituen igande gauean. Eta egunean zehar, hauteskunde buruzko datu argigarriak eta argazkiak. Maiatzaren 26ko Udala hauteskundeetan informazioa zabaltzeko atal berdina erabiliko da.

Bozeramaileen adierazpenak

Jon Zulueta, EH Bildu:

"2016ko emaitzekin alderatuta 500dik boto gehiago berreskuratu ditugu. Udala hauteskundeetarako lehia aurreikusten da. EH Bildu prest dago Udala hauteskunde horiek behar bezala lehiatzeko".

Maider Lainez, PSE-EE:


"Oso pozik gaude Andoainen lortutako emaitzekin. Oso emaitza ona da, berriro lehen indarra garelako. Udala hauteskundeei begira oso animatuta gaude".

Imanol Goenaga, EAJ-PNV:

"Oso pozik gaude, emaitza historikoak baitira. Aspaldi ez gurea Espainiako Kongresurako horrelakorik ikusi. Azpimarratzekoa da Andoaingo lehen talde abertzalea garelako".

Tere Santana, Podemos:

"Orain laugarren indarra baldin bagara ere ez zaigu emaitza txarra iruditzen. Botuei erreparatuta, lehen hiru alderdien emaitzetatik gertu gaude".



Kongresuko emaitzan EAJ-PNVk aurrea hartu dio EH Bilduri. Espainiako Senaturako emaitzan, ordea, EH Bildu EAJ-PNVren aurretik geratu da.



Urnietan Kongresuan eta Senatuan ez da aldaketarik egon. Alderdiek hurrenkera berdinari eutsi diote: EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos.

Sei etxebizitza jarriko dituzte izaera sozialeko alokairuan

Udalaren jabetzakoak dira, eta interesatuek eskaera maiatzaren 6tik aurrera egin ahal izango dute

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Gizarte mailako iragarpen garantzitsua egin zuten Etxebizitzaren Mahaiko kideek, apirilaren hasieran. Udalaren jabetzakoak diren 6 etxebizitza alokairuan jarriko dituzte. Prozedura maiatzaren 6an abiatuko da, eta informazio osoa Ataria arretarako informazio bulegoan eskainiko dute.

Ana Carrere alkateak egin zituen bozeramaile lanak, eta alboan izan zituen PSE-EE, EAJ-PNV, Ganemos eta Irabaziko ordezkariak.

Hots, Udala ordezkariak osoa. Eta haiekin batera Marce Garcia Stop Desahucios ekimeneko ordezkaria. Kide gehiagok osatzen dute Etxebizitza mahaia: Fiare, Caritas edota Gizarte Zerbitzuetako teknikariak.

Sei etxebizitza horietatik hiru premia berezia duten herritarrei eskainiko zaizkie (degaitasuna duten pertsonak, guraso bakoitzeko familiak, alargunak, genero indarkeriaren biktimak, banatze prozesuan edota bananduta egon eta euren kargu pertso-



Etxebizitza Mahaia apirilaren 12an egin zuen egitasmo berriaren aurkezpen ekitaldia. AIURRI

na gehiago dituzten kasuak, etab). Beste hirurak multzo orokorra deitzen zaion taldeari eskainiko zaizkio.

Udalak eta maizterrak hitzarmena sinatuko dute, 3 urte eta 5 urte artekoa. Informazio gehiago, Ambrosia Olabide eraikinean

eta Andoain.eus webgunean. Udalaren jabetzakoak diren sei etxebizitzak egokitzeko 230.000 euroko diru partida bideratu da.